



DATU ETA IRUDIEN BABESERAKO GIDA 2021





1- AURKIBIDEA



= esteka

GIDA HAU ZERGATIK ETA ZERTARAKO?

2- MARKO OROKORRA

2.1 LEGEDIA

2.2 OINARRIZKO KONTZEPTUAK

- Izaera pertsonaleko datuak
- Datuen kategoria bereziak
- Datuen titularra
- Datuen tratamendua
 - Tratamendu-arduraduna
 - Tratamendu-eragilea
- Datuen komunikazioa

2.3 INTERESDUNEN ESKUBIDEAK

3- HAUR, NERABE ETA GAZTEEN SUSTAPENERAKO MARKO PRAKTIKOA

3.1 HAUR, NERABE ETA GAZTEEN SUSTAPENEN ZERBITZUETAN BILDUTAKO DATUEN IBILBIDEA

3.2 IRUDIEN BILKETA ETA ERABILERA

3.3 GURE LANERAKO BALIABIDEAK

- Txantiloiak
 - Izena emateko orria
 - Irudia erabiltzeko baimena
- Online izen-ematea: BakQ euskarria

3.4 GALDERA OHIKOENAK

3.5 ERANSKINAK



- Izena emateko orria
- Irudia erabiltzeko baimena zerbitzuan
- Irudia erabiltzeko baimena ekintza puntual batean



1- AURKIBIDEA



GIDA HAU ZERGATIK ETA ZERTARAKO?



GIDA HAU ZERGATIK ETA ZERTARAKO?

Datuen eta irudien babesak garrantzi berezia du guretzat. Izan ere, haur, nerabe eta gazteen sustapenean lan egiten dugunok gure zerbitzuetan egunero darabilgu eskuartean gure erabiltzaileei buruzko informazioa eta, gainera, adingabeena izaten da gehienetan. Hortaz, datu eta irudien babesa kontuan hartu beharreko gaia da gure jardunean, baina horrelakoak nahiko arrotzak egiten zaizkigu eta, aldi berean, kontuan hartu eta egoki kudeatzera behartuta gaude.

Hori dela-eta, azken urteotan Gaztematikaren baitan gaiari heldu diogu eta hainbat pauso eman ditugu lantzeko: hezitzaileei gaiaren inguruan dituzten beharrak galdetu ondoren, teknikari zein hezitzaileentzako prestakuntza-saioak burutu dira (2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetan) eta gida hau bera ere osatu da.

Honen bitartez, haur, nerabe eta gazteen datuak eta irudiak babestu eta behar bezala kudeatzeko zenbait gako eta informazio garrantzitsu eman nahi ditugu, horiei buruz izan ditzakegun zalantzak argitzen lagundu, gaia hobeto ulertu eta, horrela, zerbitzuen kalitatea hobetzeko asmoz.



2- MARKO OROKORRA

2.1- LEGEDIA

2.2- OINARRIZKO KONTZEPTUAK

2.3- INTERESDUNEN ESKUBIDEAK





2.1- LEGEDIA:

Egun, Espainiar Estatuko 2018ko Lege Organikoa eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko Erregelamendu Orokorra dira gaiari buruz indarrean dauden legeak.

Europar Batasuneko Erregelamenduari esker, 28 Estatuk Erregelamendu Orokorra oinarri izanik garatu dituzte beraien legeak eta, beraz, elkarrekin hartutako zenbait erabaki jasotzen dituzte lege horiek. Hori horrela, esan daiteke Europar Batasunean pribatutasunaren arloan estandarizazio orokor bat lortu dela.

DBLOarekin gertatzen den bezala, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra ez da aplikatuko pertsona fisikoen jardueretan edo autoritateen prebentzio edo ikerketa judizial edo penaletan. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

[32018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.pdf \(euskadi.eus\)](#)

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra 2016/679 (EB), Europako parlamentuarena eta kontseiluarena.

- https://www.avpd.euskadi.eus/contenidos/informacion/20161118/eu_def/adjuntos/RGPD-2016R0679_Articulado-es-eu.pdf

2.2- OINARRIZKO KONTZEPTUAK:

1- IZAERA PERTSONALEKO DATUAK

Identifikatuta dagoen edo identifika daitekeen pertsona fisiko («interesdun») bati buruzko datu guztiak; pertsona bat identifikatzeko modukoa dela esango da, zuzenean zein zeharka, bere identitatea zehaztu daitekeenean, eta, batez ere, izen baten, identifikazio-zenbaki baten, lokalizazio-datu baten bitartez edo pertsona horren berariazko ezaugarri baten edo batzuen bitartez, bere identitate fisikoa, fisiologikoa, psikikoa, ekonomikoa, kulturala edo soziala agerian gera daitekeenean”.

- Adibidez, erabiltzaile baten izen-deiturak, NAN, jaioteguna, helbidea, telefono-zenbakia edota irudiak.

2- DATUEN KATEGORIA BEREZIAK

Datu pertsonal batzuk bereziki kontuz erabiltzekoak dira pertsonen eremu intimoenari eta pertsonalari buruzko informazioa ematen dutelako. Katgoria honen parte dira, esaterako: ideologia, afiliazio sindikala, erlijioa edo sinesmenak adierazten dituzten datuak; arraza-jatorriari,



osasunari edo sexu-bizitzari buruzkoak; arau-hauste penal edo administratiboei buruzko datuak; eta datu biometriko eta genetikoak.

3- DATUEN TITULARRA

Izaera pertsonaleko datuen titularra pertsona fisikoa bera da, hala nola, gaztea, hezitzailea edo langilea. Kaltetua edo interesduna izan daiteke.

4- DATUEN TRATAMENDUA

Praktikan, datu pertsonalak dituzten jarduera guztiek datu-tratamendu bat osatuko dute, bai eskuz bai modu automatizatuan eginda, hala nola, bilketa, erregistroa, antolaketa, egituraketa, kontserbazioa, egokitzapena edo aldaketa, erauzketa, kontsulta, erabilera, transmisio bidezko komunikazioa edo mugatze, ezabatze edo desegiteko beste edozein modu.

Adibidez, ikasturte-hasieran erabiltzaileen eta gurasoen datuak jasotzea (izena emateko orrian) edota webgune batean erabiltzaile baten irudi bat argitaratzea edo ezabatzea.

4.1- Tratamendu-arduraduna

Tratamenduaren helburua, edukia eta erabilera erabakitzen dituen pertsona fisiko zein juridiko eta publiko edo pribatua da. Zuzenean erabakitakoa edo legezko arau batek ezarritakoa izan daiteke.

4.2- Tratamendu-eragilea

Tratamendu-arduradunaren kontura datuak tratatzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, agintari publikoa, zerbitzua edo beste erakunde bat da.

5- DATUEN KOMUNIKAZIOA

Datuen komunikazioa titularra ez den beste pertsona bati jakinaraziko zaio.

Datuen hartzaileak pertsona fisiko edo juridikoak, agintari publikoak, zerbitzuak edo komunikatzen zaizkien bestelako erakundeak izango dira. Datuen titularrek ez dute inoiz “komunikaziorik” egiten, nahiz eta haiengandik lortu.

2.3- INTERESDUNEN ESKUBIDEAK:

Datu pertsonalak behar bezala babesteko, araudiak eskubide batzuk ematen dizkie titularrei, haien datuak eta informazio pertsonala kontrolatzeko. Tratamenduaren arduradunak horiek emateko betebeharra du.

Honakoak dira eskubideak: datuak eskuratzea, zuzentzea, ezeztatzea, aurka egitea, tratamendua mugatzea eta eramangarritasuna.





DATU ETA IRUDIEN BABESERAKO GIDA

- **Datuak eskuratzeko eskubideari** esker, datu pertsonalen titularrek doan jakin eta lor dezakete beren datu pertsonalak tratatzen ari diren, zer helbururekin, tratamenduaren arduradunak zer datu-mota dituen, zein jatorri duten, interesdunengandik datozen edo ez, eta datuen hartzaileak zein diren.
- **Zuzentzeko eskubideak** aukera ematen du akatsak zuzentzeko, datu okerrak edo osatugabeak aldatzeko eta tratatu beharreko informazioaren ziurtasuna bermatzeko.
- **Ezeztatzeko eskubideari** esker, desagokiak edo gehiegizkoak diren datuak ezaba daitezke. Baimena ezeztatuz gero, datuak bertan behera geldituko dira, tratamendua bertan oinarrituta dagoenean, baina atzeraeraginik gabe.
- **Aurka egiteko eskubideari** esker, interesdunak bere datu pertsonalak ez tratatzea edo bertan behera uztea erabaki dezake, bere egoera pertsonalarekin zerikusia duten arrazoiengatik.
- **Tratamenduak mugatzeko eskubidearekin**, interesdunak bere datu pertsonalak era mugatuan tratatzeko eska dezake, Erregelamendu Orokorren 18. artikuluan ezarritako baldintzetakoren bat gertatuz gero.
- **Eramangarritasun eskubideari** esker, dagozkion datu pertsonalak jasotzeko eskubidea izango du interesdunak. Tratamenduaren arduradunak datu horiek emango dizkio interesdunari, formatu egituratuan, eta datu horiek beste tratamendu-arduradun bati transmititzeko eskubidea izango du, datuok eman dituen arduradunak eragotzi gabe.

Eskubide hauek izaera pertsonala dute eta, beraz, datuen titularrek edo ordezkari legalek soilik erabili ditzakete. 14 urtetik beherakoen kasuan, tutoreek erabiliko dituzte eskubideak. Adin horretatik gorakoak badira, gazteek edo beren legezko ordezkariak erabili ahalko dituzte. Datuak gurasoenak badira, haiek izango dute datu horiek erabiltzeko eskubidea.

**Hau guztia kontuan hartuta, azpimarratu egin behar da gure agiri guztietan lege-oharrak jartzeak duen garrantzia, horrek adieraziko baitie datuen titularrei eskubide horiek dituztela, eta nahi dutenean erabil ditzaketela. Hau da, beraiek dira datu horien jabe.



3- HAUR, NERABE ETA GAZTEEN SUSTAPENERAKO MARKO PRAKTIKOA

3.1- HAUR, NERABE ETA GAZTEEN SUSTAPENENKO
ZERBITZUETAN BILDUTAKO DATUEN IBILBIDEA

3.2- IRUDIEN BILKETA ETA ERABILERA

3.3- GURE LANERAKO BALIABIDEAK

3.4- GALDERA OHIKOENAK

3.5- ERANSKINAK





3.1- HAUR, NERABE ETA GAZTEEN SUSTAPENEN ZERBITZUETAN BILDUTAKO DATUEN IBILBIDEA:

Lehenik eta behin, araudiak esaten duenaren arabera, udal guztiek izan behar dute datuen babesaren ardura izango duen pertsona bat. Hori horrela izanik, garrantzitsua da gure udalean pertsona hori nor den jakitea, edozein zalantza edo arazo egonez gero, beregana jo ahal izateko.

Guk soilik gure zerbitzuko erabiltzaileen datuak kudeatuko ditugu, baina udalean honen berri ere eman beharko dugu eta horretarako garrantzitsua izango da arduraduna ezagutzea.

Orokorrean, gure udal-zerbitzuetan egiten den datuen bilketa eta erabilera ez da handia izaten eta, beraz, bilketa-prozesu hauek identifikatu eta definitzea ez da horren zaila.

1- DATUEN BILKETA, GUTXI GORABEHERA, PROZESU HAUETAN EMATEN DA BATEZ ERE:

- **1. Ikasturte-hasierako izen-ematea:** Ikasturte batean gure zerbitzuko erabiltzaileen datuak biltzen dituen datu-basea da. Zenbaitetan garai zehatz batzuetan bakarrik aldatuko da, eta beste batzuetan etengabe osatzen joan daiteke. Eskura izan behar ditugun datuak dira, eta modu fisiko zein digitalean gordeta eduki ditzakegu.
- **2. Ekintza berezietarako izen-ematea:** Zerbitzuak antolatzen dituen hainbat ekintzatan beharrezkoa izaten da espezifiko izena ematea, batez ere ekipamendutik kanpo egiten direnetan. Halakoetan datuen erabilpena puntualagoa izango da, normalean ekintzak irauten duen bitartean soilik behar baititugu.
- **3. Udalekuetarako izen-ematea:** Udako eskaintzarako datuen bilketa berezia izan ohi da, zenbaitetan urtean zehar gurekin egoten ez diren hartzailleengana iristen garelako. Kasu honetan ere datuak aldi labur baterako behar ditugu, ekintzak irauten duen bitartean, baina beti eskuragarri izan behar ditugu. Gainera, horrelako ekintzetan besteetan eskatzen ez ditugun datuak behar izaten ditugu: gizarte-segurantzako txartela/datuak, esaterako.

Bestalde, ohiko datu-bilketa horiez gain, bada azkenaldian askotan erabiltzen den beste datu-iturri bat.

- **4. Sare sozialen bitartez eskuratzen diren hartzailen datuak:** Geroz eta arruntagoa da gure zerbitzuek sare sozialetan profilak sortzea eta bertan hartzailleekin harremana izatea. Ematen diegun erabileraren arabera, hartzailen hainbat datu eskuratzen edo partekatzen arituko gara, eta hori ere kontuan hartzekoa da.

2- DATUAK ZEIN EUSKARRITAN JASOKO DITUGUN ERABAKI:

Gure hartzailen datuak jasotzen ditugunean (gorago azaldutako prozesuetan, adibidez), zer formatu erabiliko dugun zehaztu behar dugu. Orain arte datuak batez ere paperez jasotzen ziren, datuak modu fisikoan bilduz; baina gaur egun gero eta ohikoagoa da



digitalki egitea. Nolanahi ere, ondo pentsatu behar dugu prozesua nola izango den eta zein euskarri erabiliko ditugun, horrek eragina baitu datuen bilketan eta kudeaketan.

3- IZEN-EMATEAK NOLA EGINGO DIREN ZEHAZTU:

Aurrekoan hartutako erabakien arabera, prozesua zein formatutan egingo dugun erabaki ondoren, datuak nola bilduko ditugun zehaztu beharko dugu.

4- DATUAK ZEIN LANGILEREN ESKU EGONGO DIREN ERABAKI:

Datu-bilketa bat egiten dugunean, garrantzitsua da horietan sartzeko aukera norik izango duen zehaztea. Batzuetan ez da beharrezkoa izango langile guztiek datu denak eskura izatea eta, izango duten erabilpenaren arabera, hau zehaztu beharreko zerbait da.


5- DATUAK NOLA ERABILIKO DITUGUN ALDEZ AURRETIK ZEHAZTU:

Datuak biltzen hasi baino lehen, ezinbestekoa da nola erabiliko ditugun zehaztea, horren arabera lege-oharrek modu batera edo bestera idatzirik egon behar baitute. Era berean, argi izan behar dugu hartzaileen zein datu behar ditugun benetan: ez dugu eskatuko behar baino datu gehiago.

6- BILDUTAKO DATUAK NOIZ ETA NOLA SUNTSITUKO DITUGUN ERABAKI:

Jasotako datuak denbora-tarte baterako beharko ditugu: ikasturtea, ekintzak irauten duena, eta abar. Hori horrela, epeak iraungita, datuekin zer egin pentsatu behar dugu, eta beharrezkoak ez diren momentutik aurrera ezabatu edo suntsitu egin beharko ditugu.





3.2- IRUDIEN BILKETA ETA ERABILERA:

Aurreko ataletan datuen babesaz aritu ondoren, orain irudien erabileraz mintzatuko gara. Izan ere, irudiek gero eta garrantzi handiagoa dute haur, nerabe eta gazteen sustapen-lanean (eta orokorrean), eta egoki kudeatzen jakin behar dugu.

Normalean gure zerbitzuetan bi helbururekin erabiltzen ditugu irudiak: egiten dugun lanaren berri emateko, edo egindako ekintzen irudiak gure erabiltzaileekin partekatzeko.

Hori horrela, irudiei buruz ere hainbat erabaki hartu beharko ditugu:

- 1.- Irudiak zein euskarritan erabiliko ditugun: sare sozialak eta webgunea izaten dira ohikoenak, baina beste batzuk ere egon daitezke (kartelak, esaterako).
- 2.- Irudiak zeinen esku egongo diren: bide egokia egiten dutela eta bete beharreko irizpideak betetzen dituztela bermatzeko.
- 3.- Irudiak atera eta argitaratzean zer irizpide kontuan hartuko ditugun edo zer arau beteko ditugun. Kontuan izan behar dugu hainbat sare sozialetara gure irudiak igotzen ditugunean, irudi horien jabetza aldatu egiten dela; jada ez dira gureak (sare sozial bakoitzaren baldintza eta ezarpenak ezagutu behar ditugu). Horregatik aldeztu behar dugu zer motatako irudiak aterako ditugun, irudietan zer ikusiko den, nor azalduko den, pertsonen identitatea igarriko den, eta abar. Hona hemen gomendatutako irizpide batzuk:
 - Argazki eta irudiak ezingo dira erabili norbanakoaren intereserako.
 - Gure erakundearen baimenik gabe beste edozein erakunde, talde edo entitatek ezingo ditu argazki edo irudi hauek erabili.
 - Irudiak edo argazkiak erabili edota argitaratzean ez da parte-hartzaileen lehen planorik hartuko, taldeko irudiak aukeratuko dira.
 - Irudiak eta argazkiak ez dira manipulatu.
 - Ateratako irudi eta argazkietan gure erakundearen balio pedagogikoak irudikatzen saiatuko gara.
- 4.- Aurreko prozesu guztiak egin ahal izateko, ezinbestekoa da irudiak nola erabiliko ditugun lege-oharretan ondo adierazita egotea.



3.3- GURE LANERAKO BALIABIDEAK:

Atal honetan haur, nerabe eta gazteen sustapen-zerbitzuetarako baliagarriak izan daitezkeen zenbait baliabide eskainiko ditugu. Batetik, zenbait txantiloiei edo eredu: izena emateko orria eta irudiak erabiltzeko baimenak; bestetik, izen-ematea online eginten denean erabili daitezkeen BakQ euskarriari buruzko informazioa ematen dugu, bere funtzionamendua eta nondik norakoak gainetik azalduz.

TXANTILOIAK:

■ IZENA EMATEKO ORRIA:

Txantiloian ikus daitekeenez, izena emateko orria editagarria da. Izan ere, sortzen ditugun ekintza guztietarako ez ditugu beti datu berdinak behar, eta kasu bakoitzean behar dugun informazioa soilik eska dezakegu. Gainera, datuen babesari buruzko lege-oharra ez da berdina kasu guztietan eta, beraz, atal hori, udal bakoitzaren arauen arabera osatu beharko da, udalak datuen babeserako duen adituak adierazitako moduan. (1. eranskina).

■ IRUDIA ERABILTZEKO BAIMENAK:

Ikus daitekeenez, bi adibide desberdin jaso ditugu: bata, zerbitzuak urtean zehar egiten duen jardun orokorrari egiten dio erreferentzia (2. eranskina); eta bestea, ekintza zehatzetan irudiak ateratzeko baimena eskatzeko erabiliko da (3. eranskina).

ONLINE IZEN-EMATEA: BAKQ EUSKARRIA:



BakQ identifikazio eta sinadura elektronikoko baliabide bat da eta identifikatzaile batez eta baimentzeko bi elementuz osatuta dago: erabiltzailea (erabiltzailearen NAN zenbakia), pasahitza (8 karakterez osatutakoa) eta 16 posizioko koordinatuen joko edo SMS bidez telefono mugikorrera bidalitako kode bat.

Edozein eragilerekin eta ezer instalatu beharrik gabe, ordenagailuetan, telefono mugikorretan eta tabletetan erabili daiteke. Tramite elektronikoa egin ahal izateaz gain, BakQ bidez, kontsultak egin ahal izango dira administrazio publikoen zerbitzuetan.

Izenperen identifikazio elektronikoko ataria erabiltzen ez duten administrazioekin eta erakundeekin harremanetan jartzean ere BakQ erabili daiteke identifikatzeko eta sinatzeko. BakQ baliabideak sinadura-ziurtagiri kualifikatu bat du, eta ziurtagiri kualifikatu hori txartel fisiko batean erabiliko balitz bezala erabili ahal izateko, Izenpek txartel birtuala eskaintzen du. Ordenagailuan instalatzen den software txiki bat da, eta horrekin, ziurtagiri digitalen erabilera ahalbidetzen duen edozein egoitza edo bulego elektronikotan identifikatu daiteke.

Informazio gehiago

<https://www.izenpe.eus/iee/eu/bakq.shtml>





3.4- GALDERA OHIKOENAK:

DATUEN TRATAMENDUARI BURUZKO OHIKO GALDERAK:

1. ZER DA DATU PERTSONAL BAT? ADIBIDEAK

Datu pertsonal bat da identifikatuta dagoen edo identifika daitekeen pertsona fisikoei buruzko edozein informazio, alegia, haien identitate fisiko, fisiologiko, psikiko, ekonomiko, sozial edo kulturalari buruzko edozein informazio. Pertsona bakoitza izango da bere datu pertsonalen titularra.

- Adibideak: erabiltzaile baten izen-deiturak, NAN, jaioteguna, helbidea, telefono-zenbakia, helbide elektronikoa, irudiak, gurasoen datuak ere bai (lanbidea, ikasketak, lan egiten duten tokiak, bankuko kontuaren zenbakia).

2. ZER DA DATU-TRATAMENDU BAT? ADIBIDEAK

Datuak Babesteko Lege Organikoak (DBLO-LOPD) zehazten duenez, datu pertsonalak dituzten jarduera guztiek datu-tratamendu bat osatzen dute; bai eskuz egiten direnak (fisikoki), bai modu automatizatuan (ordenagailu bidez) egiten direnak: datuen bilketa, erregistroa, antolaketa, egituraketa, kontserbazioa, egokitzapena edo aldaketa, erauzketa, kontsulta, erabilera, komunikazioa, zabalkundea, ezabatzea edo suntsitzea... denak datu-tratamendutzat joko ditugu.

- Adibideak:

1. Ikasturte hasieran erabiltzaileen eta gurasoen datuak jasotzea (izena emateko orrian) datu pertsonalen tratamenduaren adibide argia da.
2. Webgune batean erabiltzaile baten irudi bat argitaratzea, edota hura ezabatzea.

3. ERABILTZAILEEI (ETA GURASOEI) ZER DATU ESKATU BEHAR ZAIZKIE? ADIBIDEAK

Datuak Babesteko Lege Organikoak (DBLO-LOPD) zehazten duenez, gehiegizkoak diren datuak ezingo dira bildu datuak eskatzerakoan. Horren arabera, adostutako helburu horretarako beharrezkoak diren datuak soilik eskatuko dira.

- Adibidea: Plaza mugatua duen ordainpeko ekintza baterako ez litzateke egokia izango gurasoei bankuko kontu korrontea eskatzea, ume horrek ekintza horretan plaza bat duela ziurtatu arte.



4. NORI ESKATU BEHAR ZAIO BAIMENA? ERABILTZAILEEI? EDO GURASOEI?

Datuak Babesteko Lege Organikoak (DBLO-LOPD, 7. artikulua) zehazten du 14 urtetik beherako adina dutenen gurasoei dagokiela baimena emateko ardura. Adin horretatik gora, adingabeek eman dezakete baimena.

5. ZENBAT DENBORA ETA NOLA GORDE BEHAR DIRA DATUAK?

Datuak Babesteko Lege Organikoak (DBLO-LOPD) zehazten duenez, arau orokor gisa, datu-bilketak duen helbururako eta datu horiek tratatzearen ondorioz sor daitezkeen erantzukizunei aurre egiteko beharrezkoa den denboran gordeko dira. Beharrezkoak ez direnean, ezabatu egin beharko dira datuak. Horren arabera interpreta dezakeguna da ezin dela epe jakin bat ezarri eta zerbitzu (udal) bakoitzak adostu beharko duela bere protokoloetan.

6. DATUEN TRATAMENDU GUZTIETAN GURASOEN BAIMENA (EDO ERABILTZAILEENA) IZATEA EZINBESTEKOA AL DA?

Ez. Datuak Babesteko Lege Organikoak (DBLO-LOPD) zehazten du badaudela salbuespen batzuk non zerbitzuek ez duten baimenik izan behar datuen tratamendua burutzeko. Adibidez, erabiltzaileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko xedez, segurtasun-indar eta -kidegoei, gizarte-zerbitzuei edota osasun-zentroeiei erabiltzaileei buruzko informazioa eman dakieke, haien baimenik izan gabe.

7. KANPOKO ENPRESA BATEKIN EKINTZA BAT ANTOLATZEN DENEAN GURASOEN BAIMENA BEHARREZKOA DA?

AEPDk dioenez, datuak beste erakunde/enpresa batzuei jakinarazteko, oro har, interesdunen, erabiltzaileen edo gurasoen edo tutoreen baimena beharko da (14 urtetik beherakoak badira). Hala, jardueraren bat egin nahi izanez gero, adibidez, museo batera joan, kirola egin, etab., beharrezkoa da interesdunen edo haien guraso edo tutoreen alde aurreko baimen argia.





IRUDIEN TRATAMENDUARI BURUZKO OHIKO GALDERAK:

1. ADINGABEEN IRUDIAK HARTZEKO GARAIAN, ZER NOLAKO JARRAIBIDEAK AINTZAT HARTUKO DIRA?

- Honako printzipio hau aplikatzea: argazkiaren protagonista ez da adingabea bera, baizik eta egiten ari dena (ekintza).
- Haur eta Nerabeen irudiaren babesa jartzea beti promozio edo bestelako helburuen gaintik.
- Adingabeak ahalik eta gutxien identifikatzeko ahaleginak egitea (are gehiago argazkiak webgune edo sare sozialetara badoaz).
- Aurrekoari loturik, erretratu edo lehen planoko argazkiak ekiditea eta, horren orde, beste aukera batzuk bilatzea (sorbaldatik ateratakoak, egiten ari diren ekintzan zentratuz).
- Banakako irudien orde, talde-argazkiak hobetsiko dira.
- Iraingarriak izan daitezkeen irudiak ez hartzea (ezta argitaratzea ere), adingabeen ohorea, intimitatea eta pribatutasuna babestuz.
- Baimenik eman ez dutenen kasuan (edo atera nahi ez dutenekin) aukera bat izango da beraiek argazkilari-lanak (edo laguntzailearenak) egitea, bazterturik ez uzteko.
- Behin irudia aterata, adingabearen oniritzia eskatuko da, prozesuaren parte eginez eta betiere bere iritzia aintzat hartuz.

2. GURASO BATEK ARGAZKIETAN ATERATZEKO BAIMENA EMAN BADU, BAINA ERABILTZAILEAK NAHI EZ BADU (ETA ALDERANTZIZ), NOLA JOKATU?

Lehenik eta behin, erabiltzaileen adina kontuan hartu beharko da. DBLOak zehazten du adinez 14 urtetik gorakoa bada, erabiltzailearen erabakia beti gailenduko dela. 14 urtetik beherakoen kasuan, berriz, nahiz eta gurasoen baimena izan, argazkia ateratzeko, hezitzaileei dagokie balorazioa egitea, betiere umearen erabakia zein den aintzat hartuz (gerta daiteke gurasoen baimena izatea, baina adingabeak argazkian atera nahi ez izatea).

3. NOLA JOKATU ARGAZKI BAIMENIK EZ DUTEN ERABILTZAILEEKIN?

Nahiz eta argazkiak ateratzeko baimenik ez izan, kontuan hartu behar da ekintza batetik inoiz ezin izango dela erabiltzailerik baztertu arrazoi horrengatik. Beti izan behar du lehentasuna "adingabearen interes gorenak" (Adingabearen Legeko 2. artikulua).

4. ARGAZKI BATEAN BAIMENIK EZ DUEN ERABILTZAILEREN BAT NAHI GABE ATERATZEN BADA, NOLA JOKATU?

Argazkia bere horretan ezin izango da inoiz argitaratu (web, sare sozial, memoriak...), eta argitaratu bada, toki horretatik ezabatu egin beharko da. Arazo legalak saihesteko, zilegi da argazki horretan erabiltzailearen aurpegia difuminatzea edo pixelatzea, baina hala eta guztiz ere, horrelako teknikak askotan ez dira nahikoak izaten adingabea ez identifikatzeko (askotan kontrako eragina dute).



5. NAHIZ ETA ERABILTZAILE BATEK (EDO GURASO BATEK, LEGEZKO TUTORE MODUAN) ARGAZKIAK ATERA ETA ARGITARATZEKO BAIMENA EMAN, BA AL DU AUKERARIK EDOZEIN UNETAN HORIETAKO BAT EZABATZEKO AGINDUA EMATEKO?

Bai. DBLOren (LOPD) 15. artikuluan zehazten denez, erabiltzaileen eskubideetako bat da ezabatzekoa. Beraz, horrela eskatuko balu, argazkia kendu eta ezabatu egin beharko litzateke.

6. LEGEZKOA AL DA SARE SOZIALETAN JARDUEREN ZABALPENERAKO IRUDIETAN ADINGABEEN AURPEGIAK AGERTZEA, BAIMENA SINATU ARREN?

Bai, interesdunek (edo guraso edo tutoreek, 14 urtetik gora denean) baimen-orrian helburu horrekin egiteko onespena eman badute, zilegi da. Halere, adingabeen irudiak hartzerakoan komeni da argazkiak egiteko garaian aipatutako aholkuak jarraitzea, are gehiago irudi horien difusioa egiten bada.





3.5- ERANSKINAK





3.5- ERANSKINAK:

1. IZENA EMATEKO ORRIA

**Dokumentua
Euskaraz (word)**

**Dokumentua
Erdaraz (word)**

2. IRUDIA ERABILTZEKO BAIMENA ZERBITZUAN

**Dokumentua
Euskaraz (word)**

**Dokumentua
Erdaraz (word)**

3. IRUDIA ERABILTZEKO BAIMENA EKINTZA PUNTUAL BATEAN

**Dokumentua
Euskaraz (word)**

**Dokumentua
Erdaraz (word)**





IZEN-EMATE ORRIA

ZEIN DA EKINTZA + URTEA : _____

ADINGABEAREN DATUAK :

Izen-abizenak: _____

Jaioteguna: _____ NAN zenbakia: _____

Helbidea: _____

Posta-kodea: _____ Herria: _____

Probintzia: _____

Sinadura (14 urte baino gehiago):

Kontuan hartzeko oharrak (alergiak, gaixotasunak, medikamentuak...):

TUTORE LEGALEN DATUAK

Izen-abizenak: _____ _____	Izen-abizenak: _____ _____
NAN zenbakia: _____	NAN zenbakia: _____
Kontakturako telefono zenbakia: _____/	Kontakturako telefono zenbakia: _____/
Helbide elektronikoa: _____/	Helbide elektronikoa: _____/
Sinadura:	Sinadura:



LEGE-OHARRA

(Zerbitzu bakoitzak berea jarri beharko luke, bere datuen arduradunaren, gordailuaren, helburuan edo udalaren legediaren arabera).

Adibidez:

Abenduaren 6ko 3/2018 legeak, Datu Pertsonalen Babesa eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoak batetik, eta Datu Pertsonalen babesa eta pertsona fisikoen zirkulazio askeari buruzko Europako Parlamentuaren Erregelamenduak (UE 2016/679) bestetik, ezarritakoari jarraiki, fitxategi honetan jasotako datu guztiak _____ udalak bildu eta tratatuko ditu eskabidea egoki bideratzeko helburuarekin.

Eskabide hau zure borondatez eta baimenez egin da, eta Udalak erantzungo dio zuk eskaturiko tramitea egoki burutzeko. Edonola ere, edozein unetan baliogabetu dezakezu baimen hori.

Beraz, udalak gordeko du baimen hori zuk baliogabetu arte edo eman zen helbururako baliogabe izan arte.

Datuak tratatzeko, berriz, _____ udalak ziurtatzen du segurtasun neurri egoki guztiak hartu dituela, eta horretarako langileak trebatu dituela horien pribatasuna bermatzeko, galera ekiditeko, gaizki ez erabiltzeko, ez aldatzeko, baimendu gabe ez sartzeko edota ez galtzeko eta horrekin batera, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko araudia betetzeko.

Edozein unetan interesdunak eskubidea du datuetan sartzeko, horiek zuzentzeko, kentzeko, aurkaratzeko eta trataera nahiz eramangarritasuna mugatzeko. Horretarako, eskaera egin behar dio _____ udaleko Datuen Babeserako delegatuari (*helbidea*) edo helbide elektronikoa honetara mezua bidali (*helbide elektronikoa*) bietan honako hau idatziz: "Gaia: DBLO eskubideak" eta bere nortasuna egiaztatzeko agiriaren kopia erantsiko du, gai honen inguruko araudia betez

Pertsonak ikusten badu bere eskubideak ez direla behar bezala errespetatu gai honen arloko eskumena duen agintaritzara jo dezake (Datuen babeserako agentzia www.aepd.es).



DATU ETA IRUDIEN BABESERAKO GIDA

(ZERBITZUKO JARDUN OROKORREAN IRUDIAK ERABILTZEKO BAIMENA: 2020-21)

TUTORE LEGALAK:

Izen-abizenak: _____ _____	Izen-abizenak: _____ _____
NAN: _____	NAN: _____

ADIERAZTEN DUT:

XXXXXXXXXX-(e)k antolatu duen (aurrerantzean xxxxxx) xxxxxxxxxxxxxxxx (aurrerantzean xxxxxxxxxxxxxxxx edo ekimena) dibulgaziozkoa denez, onartzen dut ondo informatuta nagoela irudiak grabatzeari, argazkiak egiteari eta zabaltzeari dagokionez. Era berean, Espainiako Konstituzioaren 18. artikulua norberaren irudirako eskubidea aitortzen duela, bai eta maiatzaren 5eko 1/1982 Legeak, Ohorea, norberaren eta norbere familiaren intimitatea eta norbere irudia zaintzeari buruzkoak eta [Datuak Babesteko Lege Organikoak 3/2018](#), (aurrerantzean [DBLO](#)) eta [2016/679 Erregelamendua \(EB\)](#), [2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta \[95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena \\(Datuak babesteko erregelamendu orokorra, aurrerantzean DBEO-RGPD-GDPR\\)\]\(#\).](#)

DBLO eta DBEO-RGPDen 32. kontuan hartuzkoarekin eta 6. artikuluko xedapenekin bat etorritik, xxxxxxxxxxxxxxxx ekimenean XXXXXXXXXXXXXXXXren datu pertsonalak kudeatzeko baimena ematen dut, XXXXXXXXXXXXXXXXren erantzukizunpean. Datu horien tratamendua eta eramangarritasuna eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko edo mugatzeko aukerari buruz informatuta nagoela bermatzen dut. Horretarako, posta arruntez jo dezaket xxxxxxxxxxxxxxxx (Helbidea-Udalerrria-Probintzia) helbidera; edo mezu elektronikoko bat bidaliz xxx@xxxxxxxxxxx helbidera. Nire aldetik, datu pertsonalak eta ematen dudana informazioa egiazkoak direla bermatzen dut, eta aldaketaren bat gertatuz gero, XXXXXXXXXXXXXXXXri jakinaraziko diodala.

BERARIAZ BAIMENTZEN DUT IRUDIAK EGITEA ETA ZABALTZEA, betiere adierazitako esparruaren barruan.



(ZERBITZUKO JARDUN OROKORREAN IRUDIAK ERABILTZEKO BAIMENA: 2020-21)

IRUDIA HARTZEKO ETA ZABALTZEKO BAIMENA

(Zerbitzuaren izena) _____ zerbitzuan eta, zerbitzua ordezkatzuz, hura sustatzeko jarduera osagarrietan lortutako irudiak hemen argitaratuko dira:

- (Erakundearen izena) _____ren web gunean (www.xxxxxxxxxxxxxx.eus)
BAIMENA EMATEN DUT EZ DUT BAIMENIK EMATEN
- Sare sozialetako plataformak (xxxxxxren izeneko profiletan)
BAIMENA EMATEN DUT EZ DUT BAIMENIK EMATEN
- Beste argitalpen batzuetarako bideoak edo argazkiak (www.xxxxxx.eus)
BAIMENA EMATEN DUT EZ DUT BAIMENIK EMATEN

14 urtetik gorako nerabea

(Izen-abizenak) _____ -k (NAN zk) _____ NAN zenbakiarekin baimena ematen diot entitate honi: (entitatearen izena) _____-ri.

SINADURA:

(14 urte gorako nerabea)

14 urtetik beherako nerabea

(Izen-abizenak) _____ -k (NAN zk) _____ NAN zenbakiarekin, (adingabearen izen-abizenak) _____ -(r)en ordezkargisa, baimena ematen diot (entitatearen izena) _____-ri.

SINADURA:

(aita, ama, legezko tutorea)

_____ (a)n, 20__ ko _____ (a)ren _____ (e)(a)n



DATU ETA IRUDIEN BABESERAKO GIDA

(ZERBITZUKO EKINTZA KONKRETU BATEAN IRUDIAK ERABILTZEKO BAIMENA)

TUTORE LEGALAK:

Izen-abizenak: _____ _____	Izen-abizenak: _____ _____
NAN: _____	NAN: _____

ADIERAZTEN DUT:

XXXXXXXXXX-(e)k antolatu duen (aurrerantzean xxxxxx) xxxxxxxxxxxxxxxx (aurrerantzean xxxxxxxxxxxxxxxx edo ekimena) dibulgaziozkoa denez, onartzen dut ondo informatuta nagoela irudiak grabatzeari, argazkiak egiteari eta zabaltzeari dagokionez. Era berean, Espainiako Konstituzioaren 18. artikulua norberaren irudirako eskubidea aitortzen duela, bai eta maiatzaren 5eko 1/1982 Legeak, Ohorea, norberaren eta norbere familiaren intimitatea eta norbere irudia zaintzeari buruzkoak eta [Datuak Babesteko Lege Organikoak 3/2018](#), (aurrerantzean [DBLO](#)) eta [2016/679 Erregelamendua \(EB\)](#), [2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta \[95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena \\(Datuak babesteko erregelamendu orokorra, aurrerantzean DBEO-RGPD-GDPR\\)\]\(#\).](#)

DBLO eta DBEO-RGPDen 32. kontuan hartuzkoarekin eta 6. artikuluko xedapenekin bat etorritik, xxxxxxxxxxxxxxxx ekimenean XXXXXXXXXXXXXXXXren datu pertsonalak kudeatzeko baimena ematen dut, XXXXXXXXXXXXXXXXren erantzukizunpean. Datu horien tratamendua eta eramangarritasuna eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko edo mugatzeko aukerari buruz informatuta nagoela bermatzen dut. Horretarako, posta arruntez jo dezaket xxxxxxxxxxxxxxxx (Helbidea-Udalerrria-Probintzia) helbidera; edo mezu elektronikoko bidaliz xxx@xxxxxxxxxxx helbidera. Nire aldetik, datu pertsonalak eta ematen dudako informazioa egiazkoak direla bermatzen dut, eta aldaketaren bat gertatuz gero, XXXXXXXXXXXXXXXXri jakinaraziko diodala.

BERARIAZ BAIMENTZEN DUT IRUDIAK EGITEA ETA ZABALTZEA, betiere adierazitako esparruaren barruan.



(ZERBITZUKO EKINTZA KONKRETU BATEAN IRUDIAK ERABILTZEKO BAIMENA)

EKIMENETAN IRUDIA HARTZEKO ETA ZABALTZEKO BAIMENA

(Ekimenaren izena) _____ ekimenean eta, zerbitzua ordezkatuz, hura sustatzeko jarduera osagarrietan lortutako irudiak hemen argitaratuko dira:

- (Erakundearen izena) _____ren web gunean (www.xxxxxxxxxxxxxx.eus)
BAIMENA EMATEN DUT EZ DUT BAIMENIK EMATEN
- Sare sozialetako plataformak (xxxxxxren izeneko profiletan)
BAIMENA EMATEN DUT EZ DUT BAIMENIK EMATEN
- Beste argitalpen batzuetarako bideoak edo argazkiak (www.xxxxxx.eus)
BAIMENA EMATEN DUT EZ DUT BAIMENIK EMATEN

14 urtetik gorako nerabea

(Izen-abizenak) _____ -k (NAN zk) _____ NAN zenbakiarekin baimena ematen diot entitate honi: (entitatearen izena) _____-ri.

SINADURA:

(16 urte gorako nerabea)

14 urtetik beherako nerabea

(Izen-abizenak) _____ -k (NAN zk) _____ NAN zenbakiarekin, (adingabearen izen-abizenak) _____ -(r)en ordezkarri gisa, baimena ematen diot (entitatearen izena) _____-ri.

SINADURA:

(aita, ama, legezko tutorea)

_____ (a)n, 20__ ko _____ (a)ren _____ (e)(a)n



**GIPUZKOAKO
HAUR-
TXOKOAK
GAZTE-
LEKUAK**